

## **2014KO ZEMENDIAREN 10EAN EGINDAKO APARTEKO UDAL BILKURA**

Herria: Bakio

Tokia: Bakioko Udaletxea

Eguna eta ordua: 2014ko zemendiaren 10ean, arratsaldeko 7:00etan

BATZARKIDEAK:

Lehendakaria: AITOR APRAIZ IMATZ

Zinegotziak:

- PALOMA DE EPALZA GARCES DE LOS FAYOS
- ELSA MARÍA IMATZ BASARRATE
- LUIS FLORENCIO ZABALA SANTA ANA
- FELICIANO JAUREGUIZAR ORAINDI
- IKER MURUAGA GOIKOETXEA
- AMETS JAUREGIZAR BARAIAZARRA
- JON PELI HORMAECHE ASOLO
- ALBERTO BILBAO BELTRÁN DE GUEVARA
- GORKA RENTERIA GARAI
- MIREN LUKE VERDES CEARRA

Helburua: Lehenengo deialdian, udalaren aparteko bilkura egitea. Era berean, kontuan hartu behar da Juan Francisco Eiguren Kortazar idazkariak bilkura horretako zinegotziei deitu deusela legeak agintzen dauanaren arabera.

Idazkari jaunak batzarrari hasikera emoteko legezko “quorum”a dagoala egiaztatu orduko, alkate jaunaren lehendakaritzapean ondorengo gai honeek eztabaidatu eta erabagi dira:

### **1.- HERRIKO PLANGINTZA OROKORRA BERRIKUSTEKO PROZEDURA TRAMITATZEN DAGOALA ETA, URIGINTZAKO PLANGINTZAREN AURRERAPEN AGIRIA JENDAURREAN IPINTEA ERABAGI.**

Aitor Apraiz alkateak dino aurrerapen agiria herritarrei ezagutarazoteko neurriak hartu diran arren —horren edukia pasa dan hiletik herriko web orrian ageri da eta agiri horren idazlariak be horrezaz berbaldia emon dau—, jendaurrean jarteko erabagia hartu behar dala-eta udalbatzarrera ekarri da.

Gaiari ekin orduko, Felix Jauregizar zinegotziak adierazo dau, euren ustez, ez dala udalbatzaren eskumena aurrerapen agiria informazino publikoan ipinteko erabagia hartzea, alkatearena baino.

Idazkariak horrezaz hauxe adierazo dau: *aurrerapen agiria informazino publikoan ipinteko erabagia hartzea zein udal organoari jagokon, beren beregi, zehazten dauan arautegirik ez dago. Beraz, horretarako, organo eskuduna alkatea da, legeriak erabagiak hartzea udalarena dala esanagaitik, hori zein udal organori jagokon zehazten ez dauanean ahalmena alkatearena dalako, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dauzan Legearen 21.1.s) artikulua araber.*

Felix Jauregizar zinegotziak, BILDU-BAKIO taldearen izenean, adierazo dau, hori horrela izanik eta erabagiak ezereri eragiten ez deutson ezker, eurak ez dabela bozkatzeko orduan parte hartuko.

Aitor Apraiz alkateak dino, alkateak erabagia hartzeko ahalmena izan arren, aztergai zerrendan sartu dala plangintzaren berrikuspenaren ganeko erabagi garrantzitsuenak udalbatzaren eskumenak dirala kontuan hartuz, bai eta, udalbatzak hartzen dauan erabagiagaz bera, barruan dala, bat etorri ezker, erabagia baliogarria dala kontuan hartuz be.

EAJ/PNV udal taldeko Aitor Apraiz, Floren Zabala, Gorka Renteria, Paloma Epalza, Iker Muruaga eta Elsa Imatz zinegotzien aldeko botoagaz, bertaratutako zinegotzi gehienak izanik, Udalaren Osoko Bilkurak, erabagi hau hartu da:

**Bakioko plangintza orokorra berrikusteko prozedura tramitatzen dagoan ezker, urigintzako plangintzaren aurrerapen agiria hile biko epean jendaurrean ipintea, horretarako, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, egunkari baten eta herriko iragarki taulan iragarkiak ipiniz, beti be edozein pertsonak iradokizunak edota beste alternatiba batzuk aurkeztu ahal izateko.**

## **2.- BAKIOKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO UE G.2. URI LURZORUKO JARDUNUNEAREN ESPARRUARI JAGOKONEZ, JARDUKETA SISTEMA BEHIN BETIKO ALDARAZOTEA, KONPENTSAZIO SISTEMAREN ORDEZ LANKIDETZA SISTEMA EZARRIZ.**

Aurrekariak:

- Alkatetzaren irailaren 24ko 309/2014 zk. dekreturan bidez erabagi hau hartu zan: *Bakioko arau subsidiarioetako UE G.2. hiri lurzoruko jardununearen esparruari dagokionez, jarduketa sistema aldarazteko espedientea hasiera batean onartzea, konpentsazio sistemaren orde z lankidetza sistema ezartzeko.*

- Horren ostean, espedientea hogeitasteguneko epean informazino publikoan egon zan, horretarako iragarkiak ipini ziran eta, bai 2014ko irailaren 30eko egunkari bitan, bai

2014ko urriaren 3ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, bai herriko iragarki-taulan, bai eta Bakioko Udaleko web orrian be. Horrezaz gain, eremuko jaubeei entzunaldia emon jaken eta, ez da erreklamaziorik aurkeztu.

Aitor Apraiz alkateak dino horrerri buruz informazino batzordean berba egiteaz gain, zinegotziek espedientearen jakitun diran ezkerro be, jarduketa sistema aldarazpenari buruz behin betiko erabagia hartzea baino ez dala gelditzen.

Segiduan Felix Jauregizar zinegotziak, BILDU-BAKIO taldearen izenean, dino: *UE G.2 jardununea ibai inguruan egonik, uste dogu, ibaia bideratzeko obrea egin aurretik jardununea garatzea arriskutsua dala, ez dakigulako obra horrek horrerri zelan eragingo deuston, eta, beraz, bertan egitea aurreikusten diran etxebizitzetzi. Era berean, ez dakigu herriko urigintzako plangintza barrian jardununeari buruz zer azalduko dan, hau da, erabilerari, eraikigarritasunari, eta abarrei jagokenez. Ganera, lur-zati gehiengoaren jaubea danak ez dau eskatu jardununearen garapena gauzatzeko, ekimena udalarena da eta. Uste dogu, hori guztiori bideratu arte jardununearen urigintzazko garapen prozesurik ez dala egin behar; beraz, gure botoa ezezkoa izango da.*

Alkateak erantzun deutso esanez ibaiak ez deustola jardununeari eragiten.

Azkenik, EAJ/PNV udal taldeko Aitor Apraiz, Floren Zabala, Gorka Renteria, Paloma Epalza, Iker Muruaga eta Elsa Imatz zinegotzien aldeko botoagaz, bertaratutako zinegotzi gehienak izanik, Udalaren Osoko Bilkurak, erabagi hau hartu da:

**Indarrean dagozan Bakioko urigintzako plangintzaren arau subsidiarioetan, UE G.2. uri lurzoruko jardununearen garapenerako, ipinita dagoan jarduketa sistemaren aldarazpena behin betiko onartzea, konpentsazio sistemaren orde z lankidetzaz sistema ezarriz.**

BILDU-BAKIO taldeko Felix Jauregizar, Amets Jauregizar, Alberto Bilbao, Jon Peli Hormaeche eta Miren Luke Verdes zinegotzietz, barriz, jarduketa sistema aldatzearen aurkako botoa emon dabe, Felixek egindako adierazpenagaz bat etorritz.

Azkenean, udalbatza zinegotzien arteko eztabaida artean amaitu da, eta alkate jaunak batzar hau 19:15ean emon dau amaitutzat, eta horrelaxe egiaztatu dau idazkariak.

Alkatea

Idazkaria